



SEGURAKO UDALA

SEGURAKO UDALA

Iragarkia

Arauzko jendaurreko informazio epea iragan denez batere erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe, behin betikotzat jo dira Udal Batzarrak 2014eko Urriaren 30an hartutako hasierako erabakiak, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzak finkatu eta aldatzekoak, 2015ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldatutako testuak honakoak izanik:

***1.- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.**

Hobari hau onartzen da: Kuotaren % 100eko hobaria izango dute ibilgailu historikoeak edo hogeita bost urte baino gehiago dituztenek. Beti interesatuak eskatuta eta hobaria justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztuta.

- Zerbitzu publikoak prestatu eta iharduerak egiteagatiko tasa.

Ordenantza Fiskal Arautzaileko eranskinaren epigrafeetatik ondorengo kuotak aldatzen dira:

*** 2.- Zaborrak etxez-etxe biltzeagatiko tasa:**

Okupatutako Etxebizitzak.....	111 €.
Hutsik dauden etxebizitzak.....	77,50 €.
Baserriak	89 €.
Tabernak.....	270 €.
Merkataritza.....	135 €.
Jatetxeak.....	371 €.
Tailerrak: 20 langile arte.....	297 €.
Tailerrak: 20 langile baino gehiago.....	387 €.

Konposta edo auzo konposta egin dutela ziurtatzen dutenei %30eko hobaria aplikatuko zaie.

*** 3.- Hilerria erabiltzeko Tasa:**

+ Ehorzketak egin edo gorpuzkinak nitxo berezietan sartzeagatik

- Segurako bizilagun edo kanpoko egoitzetan egon dena	205 €.
- Seguran jaiotakoa, nahiz eta ez egon erroldatuta.	307 €.

- Bi kasu horretaz aparte

410 €.

- Udal jabari publikoa okupatzeagatiko Tasak.

Ordenantza arautzaileko eraskinaren epigrafeetatik ondorengo kuotak aldatzen dira:

***4. - Barraka eta postuekin lurzorua okupatzeagatik:**

1.- Taberna, kafetegi, txurrotegi, txokolategi, ore frijituko mahaiak eta antzekoak, pastelak, gozokiak, fruitu lehorrak, patata frijituak, jostailuak, bisuteria e.a. salpostuak: 50 € egunean.

2.- Grua edo bestelakoarekin lur zorua okupatzeagatik.- 0,15 € m²/eguneko

3.- Tiro txoznak eta bestelako jokoak: 50 € egunean.

4.- Ziboak, tresna hegalariak, kalesatxoak, zaldiko maldikoak eta oro har mugitzen diren aparagailuak.: m²ko edo zatiko 2,36€ egunean.

5.- Autokotxe pistak: m²ko edo zatiko 0,28€ egunean.

6.- Ikuskizun eta antzekoak: m²ko edo zatiko 0,28€ egunean.

7.- Zirkoak: m²ko edo zatiko 0,25€ egunean.

8.- Azoka postuak:

Astean behin joaten direnentzako 8,60 € . egun eta postu bakoitzeko.

Hamabosten egunean behin joaten direnentzako 10,55 € . egun eta postu bakoitzeko.

- Udal eskumeneko zerbitzuak prestatu eta iharduerak egiteagatiko Tasa.

Ordenantza arautzaileko eranskinaren epigrafeetatik ondorengo kuotak edo tipoak aldatzen dira:

*** 5.- Udal materiala uzteagatiko Tasa:**

- Eskailera, mangerak.....	9,65€/eguna
- Mahaiak, Hesiak.....	0,94 €/eguna
- Aulkiak	0,47 €/eguna
- Ganadu-gurdia.....	12,55 €/eguna
- Ganadu-gurdia.....	50 €/urtekoa
- Soldagailua.....	12,55 €/astea
- Sorgailu elektrikoa.....	12,55 €/astea
- Hormigoi makina.....	12,55 €/astea
- Aldamioak.....	7,95 €/eguna
- Zorrozteko makina: kutxila bakoitza.....	3,70 €/eguna
- Sega-makinak (txikia edo handia).....	10,75 €/ordua

*** 6.- Turismoko bisita gidatuak:**

BANAKAKO PREZIOAK:

- Ardixarra etxea: 2 €/pertsonek.
- Eliza: 2 €/pertsonek.

- Ardixarra + eliza: 4 €/pertsone
- Gune historikoa (Ardixarra, herria eta karkaba): 5 €/pertsone.
- Gune historikoa + eliza: 6,50 €/pertsone

TALDEKO PREZIOAK -eskolako umeak, talde antolatuak...- (10 pertsone edo gehiago):

- Ardixarra etxea: 1,80 €/pertsone.
- Eliza: 1,80 €/pertsone.
- Ardixarra + eliza: 3,5 €/pertsone
- Gune historikoa (Ardixarra, herria eta karkaba): 4,5 €/pertsone.
- Gune historikoa + eliza: 5,5 €/pertsone

Aldatutako Ordenantza eta Eraskinen gainerako hitzbaketak 1989ko abenduaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, eta hemen aipatutzat jotzen dira, osorik hartuta bailiren, alegia.

Hau guztia, Gipuzkoako Ogasun Lokalak erregulatzeko dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikulua agindutakoa betez argitaratzen da, guztion jakinerako eta artikulua horretan aurreikusten diren gainerako ondorioetarako.

Foru Arau horren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta Ordenantzetan egindako finkatze eta aldaketak onartzen dituzten erabaki horien kontra interesatuek tarte jarri ahal izango dute errekurso kontentzioso-administratiboa Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabetetako epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Horren kalterik gabe eta aipatu artikulua emandako baimenarekin bat, interesatuek jarri ahal izango dute, hala nahi badute eta bide kontentzioso-administratiboa hartu aurretik, Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurreko erreklamazioa, horretarako hilabeteko epea dutelarik, argitalpen horiek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita.

Segura, 2014ko abenduak 11.- ALKATEAK.